

...eta

Kitto!

888 zkio.
2014-V-9

IV. Euskararen Transmisioa MINTEGIA

Erabileran

dago ERRONKA

%30
deskontua
eguzkitako betaurreko guztietan
BILDUMA BERRIAK!

**AURRERATU
UDA GARAIARI**

Ray-Ban® smiff® VIOLE OAKLEY
eta askoz gehiago...

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Bilbon gurtza zentroen inguruan sortutako eztabaida, segur aski, Euskadin aniztasuna ulertu eta kudeatzeko dugun ikuspegiari egin zaion test esanguratsuen izango da. Eta aitortu behar dugu test horretan nota kaxkarrak lortu dugula. Erljio musulmana gure gizartearen osagaia denez, espazio publikoaren erabilera ahalbidetu beharko zaio erlijio horri"

(XABIER RIEZU, DEUSTUKO IRAKASLEA)

"Urtetan arte munduan ibiltzeak eman didan esperientziatik ateratako ondorioetan oinarrituta, zinemara joaten ez den jendearentzat egindako filma izateak eman dio hainbeste ikusle *8 apellidos vascos* film kaxkarrari. Horrek ez du esan nahi masa horretzat egindako filmak edo antolatutako erakusketak arrakasta izango dutenik, baina lehenbiziko baldintza da"

(ISMAEL MANTEROLA, IRAKASLEA)

"Erdiaroan gaztelu eta jauregi ederretan bizi ziren batzuk, jende pilaka estalpe arrunt bat eskuratzeko gauza ez zenean. Gaur egun ere guk uste baino ehunka metroko eraikuntza gehiago ikusten ahal dira. Nola ez bada, ehunka milaka euro sakeleratzen dutenean, nahiz eta gehienak mila baino gutxiagorekin konformatu behar"

(PELO APEZTEKXA, APAIZA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

KALE-TXAKUR.- Kalean ibiltzen den jaberik gabeko txakurra. *'Perro callejero'*. Golfua, tunantea ere esan nahi du. *"Moskun kale-txakur asko ei dabil azken aldian"*. *"Kale-txakur ebillen, iñun ostaturik emon gura ez zetsela"*.

KALERIK KALEKO ZEZENA.- Sokamuturretako zezena. *"Gure denboran, San Blas jai erdixa izaten zan kalerik kaleko zezenakin"*.

eskutitzak

JESUS REMENTERIA JOAN ZAIGU

Ustekabean joan zaigu Txus adiskidea. Isil isilik bere bizitza osoan izan duen jarrerari leial izanik. Bere adiskide sentitzen garenok saminduraz sentitu dugu bere heriotza; baita, era berean, bere bidelagun izanaren poztasuna ere.

Gizon atsegina zen, sentimentu sakon eta benetakoak zituen horietariko, baldintzarik gabeko lagunena laguna, soziedadeko mahai inguruan lagun arteko ospakizunaren bat antolatzeko beti prest agertzen zena. Eibartar peto petoa, Eibarzale amorratua, ze nolako poztasuna eraman duen bere baitan Eibar futbol taldea gailurrean ikusterakoan! Hamaika aldiz adierazi izan digu, antolatzen zizkigun afari goxo horietan, Eibar primerako taldea Primeran ikusteko zuen itxaropena.

Herriarekiko konpromisoa haratago eraman zuen,

bere abertzaletasunaren islada izan baitzen hamar urte luzez Eibarko zinegotzia izateko hartu zuen erantzunkizuna. Herrigintzarako grina hiritarrekiko gertuen dagoen udal erakundetik bideratu nahi izan zuen beti. Hainbeste maite zuen Eibarko ingurua eta ingurumena konbentzimenduz eta modu neke ezinean defendatu eta babestu zituen.

Hitz gutxitan, Jesus euskaldun jatorra eta konprometitua zen; eta zure lagun izan garenok harro gaude zu ezagutu eta zurekin lan egin izanaz. Bere emaztea, Jone, sema alaba, biloba eta etxeko guztiak, Txus galdu izanaren goibeltasunarekin batera, harro sentitzeko arrazoi ugari dituzue; izan ere bere bizitzako lehentasuna izan zaretelako beti bere etxekoak. Goian bego.

HERRIGINTZAN BIDELAGUN IZAN GAREN ZURE ADISKIDEAK. EIBARKUAK

EIBAR FT-REN DEFENTSAREN PARETAREN INSTALAZIOAREN INGURUAN

1.- Taldeak derrigorrezko kapital zabalkuntza honetan parte hartu duten eta parte hartu nahi duten akzionista guztien ahalegina baloratu eta eskertu egiten du. Klub-arentzat ez dago lehenengo mailako eta bigarren mailako akzionistari; guztiak aitortzen ditugu. Baita baloratu eta eskertu egiten ditugu, nahiz eta inolako akziorik harpidetu ez duten, baina astebururo taldea animatu egiten dutenak ere.

2.- Hilabete bat pasata, 165.750 euro bildu ditugu, 1.724.272,95 euro den gure helburutik %10 baino gutxiago izango litzatekeena. Erritmo horretan, ez dugu inolaz ere gure helburua lortuko eta mailaz jaitziko gara.

3.- Defentsaren Pareta helburua lortzeko beharrezkoak izango diren kopuru handiagoko ekarpenak sustatu eta bultzatzeko idea bezala sortu zen. Lortu ezean, hurrengo urtean bigarren B mailan jokatzeko genuke.

4.- Ez dago B planik: egoera honekin aurrera egin behar dugu eta, horretarako, 1.000 lagun inguruko kolektiboa animatu behar dugu horietako bakoitzak 1.000 euroko ekarpenak egin ditzan.

5.- Ez dago zertan 1.000 euroak aldi batez ordaindu. Taldeak egin beharreko ahalegina ulertu egiten du; horregatik Banco Sabadell - Guipuzcoano-n finantzapen planak daude, hilero 30 euroko kuoten bitartez. Ez dira aldirateko 1.000 euro, 30 euro hilero baizik.

6.- Klub-etik, berriz ere, bihotzez eskertzen dizuegu egindako ekarpen bakoitza. Baina gure helburua 1.724.272,95 euroko zifra ziurtatzean datza, hurrengo urtean bigarren B mailara ez jaitzeko. **Orain arte bezala jarraituz gero, ez dugu lortuko.**

Gora Eibar! Aupa Eibar! Guztiok elkarrekin 1. mailara!

EIBAR FODBALL TALDEA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERAK: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

San Isidro ospatuko dabe eguenian Arraten

Eibar eta inguruko basarritarrak San Isidro euren babesliaren omenezko jaixa ospatuko dabe datorren eguenian, hillaren 15ian Arraten. Urtero lez, programia goizian hasi eta arratsalde-illuntzera arte luzatuko da: bertsolari eta trikitilarixen parte-hartzia eukiko daben mezia 11.00etan egingo da eta, mezia amaittu eta jarraixan, santutegi inguruan prozesiñua egingo dabe eta elizara bueltatzian Kezka dantza taldiak aureskua eskinduko dau. 12.30xetan hasiko dan San Isidruetako XII. Aizkolari Txapelketia jokatzan hasi bittartian nahi dabenak Sagarmiña Getariko txakoliña, Andunetze, Mausitxa, Sosola eta Goienetxeko artzai-gaztaia eta aire librian hazittako basatxarri ezaugarrixa daken txerrikixak proba-



tzeuko aukeria eukiko dau. Aurtengo bazkarixa Kantabria jatetxian egingo dabe basarritarrak eta bazkalostia bertsolarixak eta trikitilarixa girotuko dabe eta, ondoren, 17.30xetan hasiko diran idi-probekin agurtuko dabe jaixa.

Josu Aristondo karmelita Euskal herriko fraide nagusi

Irailaz geroztik Azittaingo Jasokundeko eta Estaziñoko San Agustin elizetako parrokoa izan danak gure herrixan zittuan ardurak albo batera laga biharko dittu, Euskal Herriko fraillien nagusi barrixa izendatu dabe-eta. Jon Aristondo Sarazibarrek 18 urte egin dittu Eibarko Karmengo parrokixan eta oin Gasteizera juango da agintaritzan barrixa betetzera. Berak alde egittian Azittaingo eta Estaziñoko parrokixen arduria zeñiek hartuko daben zehazteke dago oindiok.




Giza-katiaren entsegua, zapatuan 18.30xetan

Gure Esku Dago Eibarko taldiak, beste herri batzuetako adibidiari jarraituta, ekaiñaren 8xan egingo dan giza-kataia zelan osatu ensaiatzan juateko saiua antolatu dau bixarko: herrittar guztieri dei egin nahi detse zapatuan 18.30xetan Untzagara agertzeko eta, ahalik eta jende gehixena batu eta gero, musikarekin lagunduta eta jai giruan alkartutako guztien artian giza-kataia osatzera animatzeko.



Iheslarixen eskubidien alde

Iheslarixen Eskubidien aldeko egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dittue: gaurko alkar-



tartzia deittu dabe, 19.30xetan. Eta bixar 11.00etatik aurrera mahai-ingurua egingo da Arrate Kultur Elkartian, iheslari izandako hainbat lagunekin. Eta 14.30xetan Untzagan egingo dan herri-bazkarixarekin itxiko dittue antolatutako ekitaldixak.

Cret@ azaltzeko jarduna

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak laster Cret@ proiektua ezarriko dabela-eta, horren inguruko azalpenak emoteko jardunaldixa antolatu dabe Debegesak eta Mutua Universal-ek alkarlanian. Saiua datorren asteko barixakuan (hillaren 16xan) Debegesako egoitzan egingo da, 10.00etatik 12.30xetara. Parte hartziagaittik ez da ezer pagau bihar baiña juan nahi dabenak izena aurretik emotia eskatzen dabe, www.debegesa.com atarixan, 943820110 telefonora deittuta edota pymes@debegesa.com helbidera idatzitta.

Ondarearen kontrako erasuak

Udalak azken aldixan herriko hainbat tokittan ondare kulturalaren kontra egin dittuen ekintzak gaitzetsi dittu eta, horrekin batera, ambulatoxio parian dagan Txopitea eta Pakea eskulturia margotu,



Akondiako gurutzia apurtu eta Santa Kurutzen, eskolako komunitan kaltiak eragin dittuenak identifikatzeko laguntasuna eskatu nahi detse herrittareri. Kalte guztien artian larrixena Akondiakua izan dala diñue, gurutzia erabat apurtu dabe-eta: "Gerran han hil zan Matias Zaragozano altxautako ejerzitoko kapitaiñaren oroimenez jaso zan gurutzia eta, hortaz, leku esanguratsu bat markatzen eban".

Jesus Rementeria ziñegotzi-ohia hil da

Jesus Rementeria Atorrasagasti hiru sasoi ezberdiñetan Eibarko ziñegotzixa izandakua apirillaren 29xan hil zan, 71 urterekin. Eusko Alkartasuneko ziñegotzixa izan zan 1987tik 1991ra, gero Juan Luis Cristobalen tokixa hartu eban 1997tik 1999ra arte eta, azkenik, ziñegotzi postua lortu zuen 2007ko hauteskundietan, hor be EArek kandidaturan, Mertxe Garateren atzetik.



Agur Santa Kurutzeko jaixeri

Gorosta eta Mandiola auzuetako basarritarrak giro ederrian ospatu zittuen Santa Kurutzeko jaixak aurreko asteburuan. Zapatuan eurixa bota eban, baiña halanda be antolatutako guztiak bardin-bardiñ egin ziran. Egunian egin ziran guztien artian, auzoko gaztien eta Agarre Azpiko Pepi astuaren arteko desafiak piztu eban ikusmiñ gehixen eta gaztiak probia irabazteko gogotik ahalegindu ziran arren, iazko proban be garaille izan zan astuari eziñ izan zetsen txape-la kendu. Zortzi neska mutillak 20 miñutuan 50



plaza bete zittuen 550 kiloko harrixarekin, baiña Pepik zazpi plaza gehixago egin zittuan eta probia irabaztiarekin batera, marka barrixa ezartzia lortu eban. Jaixak domekan segidu eban, eguraldi hobiak lagunduta gaiñera eta, hurrengo urtera arte agurtu baiño lehen, Santa Kurutzeko Jai batzordiak zozketia egiñ eban, produktu morduarekin betetako karretillia oparitzeko: sarixa 460 zenbakixarendako izan zan eta, irabazlia bertan eguanez, erretatuan ikusi leikian moduan pozarren jaso eban sari edarra.



autuan

TAILLARRAK MARRAZTEN

Berreibar Ekimen Kulturalak antolatuta, bixar "Euskal Herria's Sketch Crawl" izenburukua egingo da, 10.15etan Estaziñuan batu eta jarraixan. Asmua, marrazteko bihar diran erremintak eskuan hartu eta taillarretan zihar ibilbide bateri jarraitzia, ikusten diran paisajiak marrazten juateko.



EH BILDU-REN BULEGUA

Europako parlamenturako hauteskundiak dirala-eta, hauteskidiakin lotutako tramite eta bestelakuetarako bulegua zabaldu dau Eibarko EH Bilduk Toribio Etxebarria kalia. Hillaren 15era arte posta bidez bozkatzeko aukeria dagueanez, beste alderdixak euren buleguetan egitten dabizen moduan honetan be korreoz botua emon nahi dabeneri lagunduko detse.

LIKIDAZIOA

Valenciaga merkatitatea

KONFEKZIOAK

%50eko deskontuak

Zuloagatarren, 7 ☎ 943 20 22 33

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28 ☎ 943 20 79 73

Funeraria Ehortzetxe Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

asteko
254.000
datua

euro banatuko dittue aurten
Gizarte Larrialdixetan
laguntzeko. 2013an 379
eskaera egin ziran eta
266.083 euro banatu zittuen
laguntzetan: 113 etxietako
gastuetarako, 81 errenta
pagatzeko, 63 oiñarrizko
premiñendako, 51 errenta-
kidetzarako, 22 azpi-errenta-
rako eta 19 hipoteketarako.

Suspertze ekonomikorako ekimenak

Eva Juez eta Miren Sojo jeltzaliak astelehenian aurkeztu zittuen datozen egunotarako EAJ alderdikak antolatu dittuen ekitaldi eta ekimenak, Batzokixan emon eben prentsaurrekuan. Azaldu ebenez, "ekimenen helburua Eibarren etorkizunerako proiektua burutzia da, krisi ekonomikua eta gaur egun dagan langabezixata sa haundixa gainditzeko asmoz". Hori lortzeko asmoz, horretara bereziki bideratutako lantaldua osatu dabe, "suspertze ekonomikora eruangaittuan eredu, gizarte eredu eta eredu kulturala sakonki aztertu eta eragille desberdinekin kontrastatzeko". Jeltzaliak proiektua herriko eragille diferentiek in partekatu nahi dabe, "beti be, EAJ-PNVk pertsonekin dakan konpromisua buruan". Lehen ekimena aste honetan bertan hartu eban Coliseo antzokixak, eguaztean Arantxa Tapiak hitzaldixa emon eban-eta.



Miren Sojo eta Eva Juez astelehenian egindako prentsaurrekuan. SILBIA HERNANDEZ

Hillaren 15erako Gizarte Politikeri buruzko hitzaldi irekixa antolatu dabe Batzokixan, Maite Peña Gipuzkoako EAJ-PNVren gizarte politiketarako arduradunarekin eta Eider Mendoza Bartzar Nagusietako gizarte politiken bozeramailliarekin. Andoni Ortuzar EBBko presidentia be Eibarrera etorriko da, baiña alderdikuekin baiño ez da batuko.

www.eibarkirola.com webgune barrixa

Aurreko astian presentau eben www.eibarkirola.com webgune barrixa udaletxian. Kirol Patronatuko Felipe Zamakolak azaldu ebenez, "lehendikan martxan genkaguna oso zaharkituta eguan eta jendiak bestelako webgune barrixa eskatzen ebala sentitzen genduan. Horregaittik eskatu gentsan Sostoa inprentakueri gune barrixa sortzeko". Webgune barrixa herrixan daguazen kirol instalaziñuak eta zerbitzuak erabiltzen dittuen premiñak asetzeko preparau dabe eta, bestiak beste, Kirol Patronatuarekin lotutako tramitiak internet bidez egittia ahalbidetzen dau eta mugikor, tablet eta bestelako gailuetan erabiltzeko egokitu dabe.



Bikain ziurtagiria lortzeko konpromisua

Erakundietan euskeriaren erabilleria, presentzia eta kudeaketa egiaztatzen daben Bikain ziurtagirixa lortzeko konpromisua hartu dau udalak. Ziurtagirixa Eusko Jaurlaritzak emoten dau, ebaluaziño prozesu bat gainditu eta gero. Horretarako lau ardatz neurtzen dittue: erakundiaren komunikaziñua eta irudi korporatiba; kanpo harremanak; barne harremanak; eta hizkuntza-kudeaketa.


Bikain ziurtagirixa eskuratzeko konpromisuarekin batera, Euskera Batzorde espeziñikua sortu dabe udalian, gure herrixan euskeriari beste bultzada bat emoteko asmuarekin.

JUAN MARIA BEITIA ORUNA

(2014ko maiatzaren 7an hil zen, 78 urterekin)

URAK DAKARRENA URAK DAROA
ZUK EMANDAKOIA GUREKIN GERATZEN DA

Zure familia





Javier Muguruza kantautoreak "Beste hogei" bere azken diskoa aurkeztuko du datorren barixakuan, hilaren 16an, Coliseoan (20.30etan). Bere taldean izango da Mireia Otzerinjaregi eibartarraren ahotsa ere. 12. diskoa du bere bakarreko ibilbidean eta azken urteotan baztertutako arlo literarioa ere berreskuratzeko asmoa azaldu digu, Atxagarekin beste errezitaldi bati ekitekoarekin batera.

JABIER MUGURUZA (kantautorea):

"Martxa honetan laster musika profesionala desagertu egin liteke"

- Zelan definituko zenuke gurean aurkeztuko duzun zure azken lana? Zeren bila jo duzu bertan?

Geure azken lana, aurrekoen antzera, lan intimista da: eguneroko istorioak kontatzen ditu, entzuleei, banan-banan hartuta, abesten dizkiedanak. Hala ere, aurreko lanekiko bada berezitasun bat: oraingoan islada nabarmena du ezagutzen ari garen errealitate sozial latzak.

- Zenbat abesti eskaintzeko asmoa duzu Coliseoko kontzertuan? Aurreko diskoetatik zeozer errekuperatuko duzu?

Disko berri bat argitaratzen duzunean, kantu berri horiek defendatu nahi izaten dituzu jende aurrean, baina arazoa izaten da zaila dela urteetan lagundu ditzuten kantuak bazter uztea. Konkretuki, Coliseoko kontzertuan, disko berriko kantuak joango dira, nagusiki, gehi aurreko diskoetako beste hainbat ere, erreperorioa ezagunenak tartean.

- Zenbaterainoko pisua dute disko horretan Mikel Azpirozek eta Mireia Otzerinjaregi eibartarrak?

Mikelen pisua oso handia da. Kontuan hartu behar da, pianoarekin laguntzeaz gain, kantu bakoitzaren janzkera musikala, inguratzen duen giroa, berak bilatu duela. Diskoaren kontzeptuan oso inportantea da lan hori. Mireiaren ahotsak, bestalde, aspalditik laguntzen dit, eta esango nuke osagarri ezinbesteko bilakatu dela nire ibilbidean, identifikazio-marka bat. Kantari miresgarria da, dudarik gabe.

- Euskal Herrian bezain beste kantatzen duzu estatuan. Bartzelonan ere Barnasants saria jaso duzu. Non aurkitzen zara erosoan? Estatutik kanpo, zein herrialdeek markatu zaitu gehien?

Barnasants saria jaso izanak ikaragarri poztu gaitu. Katalunian "la canço" delakoak oso indartsu segitzen du, eta lurralde hartan gurea kontzerturik onena izendatu izana potentia da oso, kontuan harturik aurtengo edizioan ehundik gora kontzertu izan direla, punta-puntako kantautoreenak. Katalunian poz handi asko hartu ditut urte guzti hauetan, baina estatuan eta estatutik kanpo ere asko ibili gara: aurreko diskoarekin, esaterako, Polonian, Estatu Batuetan, Marokon, Frantzian....

- Azken urteotan kantautore gisa diharduzu batez ere. Les Mecaniciens-ekin eta Joxe Ri-

piaurekin jardundako sasoi ahaztuta duzu dagoeneko? Taldeekin jotzera bueltatuko zinateke?

Oso oroitzapen ederrak gordetzen ditut bi talde horiekin emandako urteetakoak, baina oraintxe ez dut nire burua horretan ikusten. Pozgarria dena da gazte batzuek lekukoa hartu eta taldearen espiritua bizirik mantentzea, adibidez Joxe Replayren kasuan.

- Zelan ikusten duzu euskal musika orokorrean? Zeozer nabarmentzekotan, norbait azpimarratuko zenuke?

Sorkuntza aldetik, ondo; baina, bestela, garai konplikatuak dira. Martxa honetan, laster musika profesionala desagertu egin liteke, eta musikari amateurak bakarrik geratuko liriteke. Normalean ez zait sobera gustatzen taldeak-eta aipatzea, baina salbuespen bat egingo dut oraingoan: Neighbor, Patxuko Nice eta Pecoza United.

- Hamar bat libururen egilea ere bazara. Badira urteak ez duzula argitaratu. Bide hori baztertuta akaso?

Baztertuta izan dut denbora luzean, batez ere helduentzako literatura. Baina aurtan, sorpresa: berriro argitaratuko dut narrazio-liburu bat, aspaldiko partez.

- Zein beste proiektutan zabilta murgilduta? "Paradisua eta katuak" errezitaldiarekin jarraitzen duzu?

Bernardo Atxaga eta biok laster beste errezitaldi berri bat hasiko gara prestatzen, "Paradisua eta katuak"eko oso esperientzia ona izan baitzen.



Javier Muguruza, Roberto Moso eta Garirekin.

Ustekabe, Condomeko banda jaialdian

Asteburua Frantzia aldean emango dute Ustekabe fanfarrekoek, Condom-en (Armagnac) egingo den Banda Jaialdian parte hartzen. Hiru egunetan Europa osoko taldeak hartuko ditu aipatutako hiriak eta orotara 2.000 bat musikarik hartuko dute parte jaialdian. Ustekabekoak ilusioz beteta abiatu dira Frantzia aldera, horrelako jaialdi garrantzitsu batean parte hartuko duen lehen aldia izango da-eta. Gainera, ohiko martxatik aldendu beharko dira gazteak: zapatuan eta domekan kale-animazioan arituko dira gazte eibartarrak, baina domekan, gainera, lau ikuskizun eskaini beharko dituzte beste horrenbeste eszenatokitan. Ikuskizun bakoitzak 12 minutu inguruko iraupena izango du eta fanfarreko kideen berbetan, ikusgarriena "Podium Tradition" delakoan egin-

go dutena izango da. Izan ere, euskal dantza tradizionala eramango dute Condomeraino eta ikuskizuna prestatzeko Kezka dantza taldeko Oier Araolazaren laguntza izan dute: "Berak lagundu digu ikuskizuna prestatzeko urrats nagusiak ematen, baita koreografiarako ildo nagusiak ezartzen ere". Horrekin batera, Carlos Sanchez-Barba musika bandako zuzendariak kantuak txaragarako moldatu eta "Potpourri Tradizionala" izenburupean bildu dizkie.

"Podium Musical" izeneko rako, berriz, txaranga batentzat ohikoa ez den kantutegia prestatu dute. "Podium Animation" izenekoak, berriz, ez dauka aurrekoarekin inolako loturarik eta, gazteen berbetan, "musikalitateak garrantzia izan arren, gehiago begiratu diote taldeak ikus-entzuleekin lortzen duen elkarrengaitari eta, ho-



Ustekabekoak Matienako kaleetan jotzen.

regatik, ikuskizun txiki bat prestatu dugu".

Ondo homituta

Asteburu honetako benetan hitzordu garrantzitsua da musikarientzat eta, horregatik, beste batzuetan baino gauza gehiago sartuko dituzte maletetan: praka zuri berriak eta bordatutako txapel gorriak estreinatuko dituzte eta, gainera, Kezkari esker bestelako apain-

garriak ere izango dituzte. Eta Ustekaberen bandarekin batera, 3'5 metroko kartel zabala ere eramango dute. Kartela Jose Antonio Azpilikueta artistak diseinatu du, gure herriko hainbat toki ensaguratsu marraztuta: Ibarkurutzeko iturria, Urkusukoa, San Andres eta Arrateko elizak, Arrate Irratiaren antena, Untzagako dorrea, Ipurua foball zelaia... eta fanfarrea bera, kalejiran.

Bertsolari gazteen txapelketa

Azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere Plazatik Gazte Xera Bertsolari Gazteen Txapelketa antolatuta dute eta Eibarko saioa maiatzaren 16an (barixakuan) egingo da, gaztetxean, 21.00etan hasiko den afaria amaitu eta jarraian. Saioan parte hartuko duten bertsolariak hauek dira: Jon Gurrutxaga & Josu Oartzabal, Jon Mikel Mujika & Aimar Goenaga, Eneritz Arzallus & Eneritz Artetxe eta Manu Goiogana & Jokin Bergara. Saioaren aurretik, girotzen joateko,



19.00etan Buenos Aires tabernatik triki-poteoan irtengo dira. Bertso saiorako sarrera librea izango da, baina afarira joan nahi duenak aurretik txartela erosi beharko du. Tikitak Depor, Buenos Aires, Beleko eta Manuel tabernetan ipini dituzte salgai (6 euro).



Itziokoak Parisen

Urtero moduan, Itzioko frantsesezko ikasleak Parisen izan dira. 69 ikasle eta lau irakasle izan ziren bisitatzen, Montparnasse dorrea, Louvre, Notre Dame, Versailles, Montmartre eta Sacré-Coeur, Garaipenaren Arkua... ezagutzeko. Ez zen falta izan bateau-mouchen ibilalditxoa! Nekatuta, baina pozik!

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Khôl Estilistak

Radio Eibar

CADENA

SEIZ

104,0 FM

Itzi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Martitzenean Euskararen Transmisioa Mintegia egin zen Portalean laugarrenez, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Goizean hasi eta arratsalderaino euskararen transmisioa ikuspegi ezberdinetatik landu zuten jardunaldira gonbidatutako adituek eta, mintegia amaitu ondoren betetako balorazio-orrietan idatzitakoak irakurri eta gero, parte hartu zuten 60 bat lagunek oso modu positiboan baloratu zuten jardunaldia. Eta balorazio-orrietatik kanpora ere, mintegiaren aurreko edizioetan jorratutako gaiak interesa piztu dutela agerian lagatzen duen beste datu esanguratsu bat ere badago, parte-hartzaileetako askok (gehienez) errepikatu egiten dute-eta, mintegia erakargarria egiten zaien seinale.



IV. Euskararen Transmisioa MINGEGIA

Egun osua EUSKARAREN inguruan

Mintegiaren egitaraua eskuan, aurreten zortzi hitzaldi eskaini dira eta, horiek amaitu eta jarraian, hizlarietako batzuk Urtxintxa Eskolako Jaime Altunak dinamizatutako mahai-inguruan hitzaldietan esandako hainbat konturen inguruko gogoetak egiteko tarteak izan zuten. Euskararen transmisioaren inguruan beharrezko dihardutenen kezka nagusia mintegiaren aurkezpenean bertan azaldu zen: euskararen eza-gutza mailak urtetik urtera gora egiten duen arren, igoera hori ez da erabileran islatzen. Bestela esanda: gero eta jende gehiagok daki euskeraz, baina hala ere askok erdera dabilte, euskeraz jakingo ez balute moduan. Horregatik, azken urteotan horretan indarra ipintzen hasi dira, joera hori aldatu duen formularen bila.

Hala ere, hizlariak oso gai anitzak azaldu zituzten martitzeneko aurkezpenetan. Lehen hitzaldia BCBL-ko saioa Larrazak eman zuten

eta, ikerketa-zentruan burmuinaren inguruan egindako proben berri eman eta horiek egiteko metodologia azaldu ondoren, bere hitzaldian hizkuntza bat jaiotzatik ikasteak daukan abantailak eta garrantzia azaldu zituen, hainbat adibide ipinita.

Neuronen aktibitatea eta bestelako batzuk teknologiarik aurreratuena erabiliz haur elebidun eta elebakerei neurtu eta gero, hainbat ondorio oso modu garbian ateratzeko moduan daude eta, azaldu zuenez, "elebidunen aktibitatea elebakarrena baino handiago da eta burmuinaren ere plastizitate handiago agertzen du". Hizkuntzak ikasteko prozesuan, berriz, "zenbat eta beranduago ikasi, orduan eta zailtasun handiago" omen dago hizkuntza hori modu zuzenean ikasteko. Beraz, zenbat eta lehenago hasi, hobe. Larrazak berak azaldu zuenez, "elebidunen neuronek elebakarren neuronek baino funtzionamendua eraginkorragoa dute, hizkuntzak eta hotsak bereizteko gaitasuna ere handiago da eta irakurketa-maila hobea daukate". Berak argi ikusten du jaiotzen garenetik hizkuntza bi ikasteak onura ugari dakartzala. Gainera, hizkuntza bat beste batengandik bereizteko daukagun gaitasunak hizkuntzen arteko nahasmena sortu daitekeela dioen mitoa indargabetu egiten duela uste dute esparru hori ikertzen duten adituek.

Atxutxiamaiak

Larrazaren hitzaldia amaitu eta, jarraian, Elgoibarko Izarrako Naiara Martinen txanda izan zen. Atxutxiamaiak gazteen aisialdi taldearen esperientziak jardun zuten eta, besteak beste, 2004az geroztik abian zegoen egitasmoan filosofia-aldaketarako arrazoiak ere azaldu zituen. Izan ere, hasierako helburua 3 eta 8 urte bitarteko umeekin eta euren familiekin aisialdia kalean lantzea izan arren, gurasoak egitasmoan inplikatzeko ezinbestekoa zela ikusi eta 2013an gurasoak sujetu aktibo bihurtzeko pausoak ematen hasi ziren. Aldaketa egin zutela denbora gutxi igaro da eta, horregatik, oraindik goizegi da datuak-eta aurkezteko, baina edozein modutan ere orain arte egin diren jarduerak oso harrera ona izan dute eta bide horri jarraituko diote etorkizunean ere.

EHU-ko Ibon Manterolak ume etorkinen euskera gaitasunaren inguruko hainbat datu interesgarri plazaratu zituen eta umeekin landutako esperimentu modukoa eta bertatik atera zituzten ondorio nagusiak ere kontatu zituen. Askok kontrako iritzia duten arren, Manterolak dioenez, "populazio etorkinaren barruan aniztasun handia dago eta aniztasun horren barruan emaitza positiboak egon badaude. Horrekin batera, ume etorkinen artean ikaskuntza arrakastatsuen zantzuak izan badira eta argi dago euskeraz eskolatzeak emaitza positiboak daukela". Hori horrela dela erakusteko Gasteizen eta Seguran urte batzuk eskolaratuta emandako umei ipuin bera euskeraz eta kamera baten aurrean, grabatzeko ahal zuten eta ondoen kontatzeko

→ 10. orrialdean jarraitzen dau



Amurriokoa Aresketa Ikastolako Eduardo Fraile bere hitzaldian. SILBIA HERNANDEZ

Euskararen transmisioa aztergai, laugarrenez

Martitzenean egin zen ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako mintegia, Eibarko Portalean. Hainbat alorretako zortzi adituk hitzaldiak eman zituzten, eta hausnarketarako bide asko zabaldu ziren, besteak beste arratsaldeko mainguruan.

Euskararen Transmisioari buruzko lau garren mintegia antolatu du aurten ...eta kitto! elkarteak, eta aurreko urteetakoa bezain arrakastatsua izan da. 60 bat lagun bildu ziren Eibarren, Portalean. Familiaren bidezko transmisioa izan zen jorrotutako gaietako bat, baina ez bakarra: elebitasunaren abantailak, ikasle etorkinen eskolaratzea, Eibarko gazteen hizkuntza jarrerak, euskararekin lotutako proiektuekin seduzitzeko ditugun arazoak... helduleku asko izan zituen mintegiak. Eta Ahotsak egitasumoko kideak ere han izan ginen, adi-adi.

Goizean hartu zuten hitza parte hartzaile gehienek. **Saioa Larrazak** ikuspegi zientifikoa ekarri zuen: hizkuntzaren eta burmuinaren arteko harremana azaldu zuen, BCBL-ko laborategian hurrekin egin dituzten esperimentuak aintzat hartuta. Ondorio nabarmenena, hauxe: elebidun goiztiarrei neurona sareak hobeto funtzionatzien die, malgutasun handiagoa dute. Ho-

rrenbestez, jaiotzetik bi hizkuntza jasotzea abantaila da umearentzat.

Elgoibarko Atxutxiamaiak aisialdi taldeko **Naiara Martinek "Kiribilduz" proiektuaren berri eman zuen**, gurasoak euskarara hurbiltzeko egiten dihardutena. Hurrekin arrakasta handia izan dute, eta orain gurasoak eragile bihurtzea dute helburu. ...**eta kitto!** elkartekoek, berriz, Eibarko erabilera izan zuten hizpide. 18 eta 28 urte bitarteko 618 gazteri inkesta egin ostean ateratako ondorioak plazaratu zituzten; besteak beste, ikastetxearen garrantzia euskararen erabileran.

Ibon Manterola EHUKO irakasleak etorkinen eskolaratzeaz jardun zuen, hizkuntza gutxituetan. Hainbat tokitako adibideak eta ikerketak aipatu zituen, Kataluniarako kasu. Ikerketa horietako asko ez dira oso onak: etorkinek emaitza okerreagoak lortzen dituzte gainerako ikasleek baino. Baina badira salbuespenak ere. Segururik egindako ikerketa bateko datu onak eman zituen Manterolak.

Euskokultur Fundazioak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ere transmisioa dute helburu. Horretarako, ahozko ondarea eguneratu dute. 0-5 urte bitarteko umeen gurasoei zuzendutako materiala

aurkeztu zuten: "Xaldun Kortin". Kantuak, jolasak eta ipuinak batzen dituen liburua, DVDa eta CDa. Hurrekin garai batean bezala jolasteko gai izateko tresnak ematea da asmoa. Ehun bat lagunek hartu dute parte proiektuan, hainbat ikastetxetako hurrekin eta Porrotx pailazoak kasu.

Eduardo Fraile Amurrioko irakasleak transmisioari buruzko hainbat hausnarketa egin zituen. Transmisioa ilusioz eta plazerrez egiten ez bada, ez dugu komunikatzea lortuko. Voltaireren esaldi batekin hasi zuen bere saioa: "Dena esan nahi duenak aspertu egiten gaitu". Maitasuna, probokazioa eta benekotasuna aipatu zituen, hartzailearen momentua errespetatzearen garrantzia... gure jardunari buruz pentsarazteko hainbat gako.

Paula Kasares UPNAko irakaslearen esku egon zen goizeko azken hitzaldia. Hainbat ekarpen egin zituen, egungo ikerketa soziolinguistikoei begira. Orain arte erabili diren kontzeptuak, eraginguneak eta ikerketa moldeak berraztertze sasoia dela iruditzen zaio. "Transmisioa" eta "ama hizkuntza" kontzeptuak, adibidez, murriztu geratu direla uste du. Ikerketa kuantitatiboak eta kualitatiboak uztatzeko beharra dagoela ere esan zuen. Eta eragingune moduan gizartea jarri behar dela, transmisioa ezin dela familiara eta eskolara mugatu.

Bazkari-legea giro ederrean egin ostean, arratsaldean **Asier Arrieta** EHUKO irakaslea izan zen hizlaria. Komunikazioa eta publizitatea izan zituen hizpide: euskaldunok proiektu onak egiten ditugu, baina ez ei dakigu saltzen. Eragin korragoak izateko aholku batzuk eman zituen Arrietak. Mainguruan, berriz, Urtxintxa eskolako **Jaime Altuna** izan zen dinamizatzaile lanetan, eta egunean zehar aipatutako gaiez gainera, beste batzuk ere jarri zituen mahai gainean. Ekarpenean interesgarriak egin zituzten mahaian bildutakoek.

Mintegia Internet bidez jarraitzeko aukera egon zen. Iazko mintegiko hitzaldiak sarean daude, eta pentsatzekoa da aurtengoekin ere gauza bera egingo dutela, denborarekin.

Ahotsak.com-ek mintegiari buruz idatzitako kronika



Ahotsak-ekoek mintegiaren iazko edizioan hartu zuten parte.



Rosa Gil Tesouro

"EZ ZAITUGU sekula inoiz AHAZTUKO"

ESKERRIK ASKO ESKAINI DIZKIGUZUN GOXOTASUN ETA GERTUTASUNAGATIK

Nieves, M^a Luisa, Maite, Aure, M^a Carmen, Arrate, Mertxe eta Lourdes zure lagunak





Saioa Larraza (BCBL).

eskatuta, bietan, Seguran zein Gasteizen ume guztiak hori egiteko gauza izan ziren

Nafarroko familietan transmisioa ahozko ondarean oinarritu dute Euskokultur Fundazioak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta euren hitzaldian "Xaldun Kortin. Jolastu gurekin" egitasmoaren berri eman zuten. Aurkeztu zuten egitasmoa hamalau urteko lanaren emaitza da eta, besteak beste, ahozko ondarea batzeko 1.300 elkarrizketa egin zituzten herri batetik bestera. Hiru eskuarritan eskaintzen duten materiala eskuratzeko eta informazio gehiagorako <http://xaldunkortin.com/> helbidera jo daiteke.

Ondoren Amurrioko Aresketa ikastolako Eduardo Frailek egin zuen berba eta hasieran argitu zuenez, transmisioari buruzko bere esperientzia azaltzeko dekalogo propioa sortu. Frailerren dekalogo horrek jasotako ideia



Paula Kasarez (UPNA).

eta gogoeta batzuk Pernandoren egiak dira, baina sarritan horrelakoekin ahaztu egiten gara. Frailerren berbetan, "egiten duzuna maite duzunean, transmititzen duzunak modu berezian erakarriko du hartzailera, zerbait berezia sortzen da hor. Horrekin batera, 'bazeneki zein pozgarria den zuri euskaraz entzutea' esaldia euskeraz egitera animatzeko orduan benetan eraginkorra dela sinesten dut".

Orain arte egin diren mintegi guztietan parte hartu duen Paula Kasaresek "Familia euskarari irauarazteko estrategietan" hitzaldia-ekin agurtu zuen goiza eta euskararen irauaraztean familiak betetzen duen tokia zein den azaldu zuen. Besteak beste, argi laga nahi izan zuen umeen hizkuntza sozializazioa ez dela etxera mugatzen, familiarik kanpora ere ematen dela. Horrekin batera, gurasoek hizkuntza dakiten ala ez askorentzat faktore



Asier Arrieta (EHU).

erabakiorra izan arren, Kasaresek ez du gauza bera pentsatzen: "Umeak euskalduntzeko orduan, gurasoen hizkuntza gaitasuna baino garrantzitsuagoa da euren seme-alabentzat zein hizkuntza aukeratzeko duten".

Eta azken hitzaldian, Asier Arrieta Publizitate fakultateko irakasleak transmisioa esparru berri bateraino eramatea lortu zuen, kanpaina arrakastatsu batek bete beharreko gutxieneko ezaugarri batzuk esplikatuta. Edozein iragarkik aurrean ikaragarria dakalerra argi laga zuen eta, horrekin batera, eta norbaitek euskara gehiago erabiltzea eragingo duen iragarkia sortu bitartean, estrategia aldatzeko ordua dela azpimarratu zuen, "pena emateko kontu hori atzean laga eta euskera jendearentzat erakargarria bilakatzea lortu behar da, gustokoa izatean errazago eta gehiago erabiltzea etor liteke atzetik".

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net


M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOIA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia

cmeibar@hotmail.com www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.



m





rrirako
UN GUZTIA
rako jantziak,
ltzeko erropa,
ta dibertigarria,
eta informalak,
akoak,
entoak...

rrirako
o d a


2
0
1
4



Birjiñape, 1

Zuloagatarren, 9

Guby
MUTILAK



**GU
BY**
EMAKUME

J. Etxeberria, 2



Ikusimakusi

F. Calbeton, 8

ONLINE: www.ikusimakusi.com



Areto-foballeko King Kong Euskadiko txapeliduna jubenetan

Ligako azken partiduko azken minutuan Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratu ondoren, jubenil mailako King Kong taldeak probintziako txapela irabazi zuen eta domekan Elgoibarko Olaizaga kiroldegian jokaturako Euskadikoa ere bereganatu. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako txapelidunen artean jokaturako Euska-

diko txapelketan, Debarrenakoek 4-2 irabazi zioten Berrio Santutxuri, Adrian eta Magroren binaka golekin, eta 1-0 Eskoriatzari, Abrahamen golari esker. Hurrengo erronka Espainiako txapelketan izango dute Debarrenako jubenil mailakoek: datorren asteburuan Levanteren aurka jokatu dute final zortzirenetan.



Eibartar asko herriko duatloiarren podiumean



Aitziher Urkiola podiumean, eskumatik hasita lehena

Sprint distantzian Gipuzkoako duatloi txapelketa izan zen jokoan apirilaren 26an jokaturako 23. Eibarko Duatloian eta Eibarko lasterkariak hainbat aldiz igo zuten podiumera. Delteco Eibar Triatloi Taldea hirugarrena izan zen sailkapen orokorrean eta bigarrena Gipuzkoakoan (Txomin Osoro, Pablo Arakistain eta Andoni Mayorekin), Aitziher Urkiola 3.a izan zen sailkapen orokorrean eta onena 23 urtetik azpikoetan, Txomin Osoro eta Pablo Arakistain lehena eta bigarrena izan ziren ju-

niorretan, Julen Teran nagusi kadeteetan, eta Juanjo Romero eta Roberto Gartzia beterranoak Gipuzkoako onenak (Romero V2 mailako 2.a sailkapen orokorrean eta Gartzia V1-eko 3.a sailkapen berean). German Amuategi eta Jon Illarramendi, bestalde, hirugarrenak izan ziren beterranoen VI mailako Gipuzkoako txapelketan. Antxintxika Servimasa taldeko bi atleta izan ziren probako irabazleak: Lourdes Oiarzabal emakumezkoetan eta Ander Agirre gizonezkoetan.

Elene Varela gimnasta hirugarrena Espainiako txapelketan



Ipurua Klubeko infantil oinarri taldeko gimnastak brontzezko domina eskuratu zuen Guadalajaran jokaturako maila horretako Espainiako txapelketan. Elene Varelak mizekin egindako ariketan 9,850 puntu eskuratu zituen eta sailkapeneko gorenera heldu zen, beste berrehun gimnasten aurretik. Berarekin jardun zuten Nahia Arguizek, Malen Txurrakak eta Elena Sudupek, azken honek kadeteetan. Emaizta bikaina, beraz, Nagornaiak, Prietok eta Merinok prestatzen dituzten gimnastentzat.

Urko 14 Alkideba F.T. talde berria

Datorren denboraldian Erregional 1. mailan lehiatuko duen talde berria sortu dute gure herrian. Foball federatua jardungo duen taldea 1993an jaiotako jokalariekin osatuko da eta aurreko asteburuan egin zuten aurkezpena, proiektua aurrera ateratzeko finantziarioa lortzeko Untzaga plazan zabaldu zuten txosnarekin.

Aukera neskentzat foballean egiteko

Foballa gustokoa duten 2001ean eta 2002an jaiotako neskek aukera dute denboraldi berrirako Urki taldearekin jokatuzeko. 678-395039 (Txus) telefono zenbakira deitu dezakete izena emateko.

Urkiko nesken infantil mailako taldeak, bestalde, denboraldia biribiltzeko martxan, Hondarribiari 3-1 irabazi ondoren, Donostian jokatu den finalerako txartela eskuratu du, lehiaketa guztian partidurik galdu gabe.

Ibai Diez nagusi San Miguel bolatokian

Gipuzkoako 45. edizioako hiru-txirlo bolo txapelketan, Asola-Berriko Ibai Diezek nagusitasun osoz bereganatu zuen San Miguelen jokaturako azken tiraldia, jarraitu zieten hiru txirloko aldea atera baitzuten. Horko emaitzekin, Arkaitz Rodriguez taldekidea igo da sailkapeneko lehen postura, Elgetako Antonio Ibarluzeak baino txirlo bat gehiago botata eta Lasturreko Joseba Lazkanok baino bi gehiagorekin. Hurrengo tiraldia bihar jokatu da Soroluzeko San Andresen, 17.00etatik aurrera.



Deporreko mendi taldekoak Cazorlan

27 mendizaleko taldea abiatu zen Jaengo lurretan dagoen eta Granada ere ikutzen duen Sierra Cazorlara. Eguenean Cerro Estrella igo zuten, Despeñaperroseko parke naturalean, Quesadan hartutako hotelean lo egiteko. Barixakuan Gilillo mendiaren gainan izan ziren, Cabeza amabirjinaren base-liza bisitatuz. Zapatuan Poyos de la Mesa eta Picon de los Halcones igo zituzten, Guadalquivir ibaia sortzen den Puente de las Herreriasetik abiatuta. Eta domekan, Rio Borosa ibai ederretik gora, Picon de la Haza igo zuten. Astelehenean etxeruntz jo zuten, La Cabreran bazkaldu eta gero.



Somos Eibar Eskubaloiak ezin izan zuen igo

Ciudad Realen jokaturako igoera fasean, eibartarrek lan ona eginda ere, ez zuten partidurik irabazterik lortu eta, horrela, faborittoa zen eta azkenean mailaz igotzea lortu duen Bm. La Rocako kataluniarrekin berdindu eta gero (27ra), beste bi partiduetan amore eman behar izan zuten: etxean jokatzeko zuten Los Alarcosekin 21-25 erori ziren, epaileen okerreko hainbat erabakiekin batera, eta Calvo Xiriako galizierrekin 20-22 galdu zuten. Hala ere, denboraldi bikaina egin dute Fernandok entrenatutakoek. Datorren denboraldian igotzeko helburu bera izango dute.



Eibartarra 3.a kart-etako Diputazio Kopan

14 urteko Ander Osorok hirugarren postua eskuratu zuen domekan Olaberriako zirkuitoan jokaturako Gipuzkoako Foru Aldundiko Kopan. 56 parte-hartzaileen artean, eibartarra Aitor Zabaleta eta Ander Zubillagaren atzetik sailkatu zen, 12tik 16 urtera arteko pilotoa parte hartzen duten proban: sailkapenerako eta entrenamendueta bakoitza 10 minutuko proben ondoren, lasterketa ere 10 minutukoa izaten da. Osororen aitak dioen moduan, "Ander bikain ibili da. Inolako pres-taketa barik aurkeztu eta piloto profesionalen semeak bakarrik hartu diote aurrea".



Eibar-Ponferradina bihar (20.15)

Las Palmasi ateratzen dion bost puntuko aldearekin jarraitzen du Eibar Foball Taldeak sailkapeneko bigarren postuan liga amaitzeko bost jardunaldi besterik geratzen ez direnean. Bost jardunaldi horietako hirutan, gainera, eibartarrek etxean jokatu dute (Ponferradina, Lugo eta Alaves hartzeko) eta egin beharreko bi bidaiak A Coruña eta Soriana izango dira. Bestalde, martitzenean amaitu zen akzioak erosteko lehen fasea (orain arteko bazkideentzako) eta hor %10 bete da. Herenegun bigarren fasea abiatu zen.



Ainara Barrenetxe bigarrena Bidasoako jaitsieran

Urbat taldeko Ainara Barrenetxek bigarren postuan amaitu zuen aletekin egindako Bidasoaren jaitsieraren 45. edizioan. Domekan jokaturako nazioarteko proba hori goizko 09.00etan hasi zen Enderlazako zubian eta, 15 kilometro bete ondoren, Hondarribiko kaian amaitu zen. Jon Ugarteburu taldekideak ere parte hartu zuen gizonetakoan.



berriak

JIU-JITSU

Calatayudeko III. edizioan lau domina eskuratu zuten Kalamuakoek: urrezkoa Iker Martinezek kadeteetan, zilarrezkoa Abderrahim Elbakalik juniorretan eta brontzezkoa Eneko Aburuzak seniorretan eta Julen Ramonek juniorretan. Guztira, 300 bat neska-mutil izan ziren parte hartzen, estatu osoko 19 klub ordezkatzen.

PILOTA

Gaur, 19.30etan hasita, Udaberri Torneoko hiru partidu jokatu dira Astelenan. Velasco, gazte mailan, eta Arribillaga eta Unamunzaga, seniorretan, izango dira Deporreko ordezkariek. Bestalde, etzi arratsaldean, profesional mailako buruz-buruko txapelketaren barruan, Zabaleta eta Untoriaren artekoa izango da jokoa.



ANA OTERO (aktorea)

"Pertsonaiak baino gehiago pertsonak aurkituko dituzue"

Gaur, 20.30etan hasita, A Priori Producciones taldeak Almudena Grandesen "Atlas de Geografía Humana" lana antzeztuko du. Juanfra Rodriguezen agindutara, Arantxa Aranguren, Nieve de Medina, Rosa Savaini eta Ana Otero aktoreek 40 urteren bueltan dauden emakumeen papera osatzen dute, lehen lankide izandakoak eta afari batean berriro elkartzen direnak. Gaur egungo gizarteari erretratoa egiteaz gain, umorea lagun, ilusioari tartea eskainiko diote.

- Zein mezu transmititu nahi duzue lanean? Zelan interpretatu dezakegu izenburua?

Lehenengo aldiz egiten den egokitzapena da eta, mezua baino gehiago, XXI. mendearen animalarioa da erakusten duguna. Lau emakumezkoen ahotsak dira protagonista, Almudena Grandesen liburua islatzen dutenak dramaturgia puntuarekin. Bizitzaren zentzu nagusia islatzen dute eta, pertsonaiak baino, pertsonak dira. Hor aurkitu dezake jendeak erakargaritasun handiena, aktoreekin izango duten identifikazioan: gure alter egoa dugu aurrean.

- Emakumezkoen ikuspuntutik egindakoa da? Edo orokorragoa?

Feminitatea begibistakoa bada ere, lana ez da feminista. Edozein sentitu daiteke identifikatuta, gizonetzko zein emakumezko izan -guztiok ditugu- eta gure alde femeninoa eta maskulinoa. Eta hori, esplizituki ez bada ere, sumatzen zaie pertsonaiei.

- Antzerkizaleentzako egindako lana da? Zeini gaustatuko zaio?

Patxadazale ez den edonorentzat egina dago. Ez da ondo gertatzeko asmoarekin egindako zeozer, inteligentzia astindu nahi duen obra bat baino. Paternalismoa alboratuta, umorea erabiltzen dugu eta hor eleberriari gaina hartzen dio. Beti ere, erudizioan erori gabe.

- Belaunaldi baten isladapena da? Edo belaunaldiarterkoa?

Abiapuntua 80. hamarkadan kokatzen da, orduko "movidaren" bueltan eta ondoren izan dugun desengainuari erreparatzen dio. Baina baztertzaila izan daitekeena alde batera laga eta perfil unibertsalagoaren alde egin dugu.

- Askok kostatu zaizue protagonisten azalean sartzea? Zer eman diezue interpretazio horrek?

Nire pertsonaia, esaterako, garaikidea izanda ere, ez du nirekin zerikusirik. Baina badu itxaropena, baikorra da oso: ni moduan. Eskaini baino gehiago, balio izan dit nireari eusteko indar gehiagorekin. Ilusioari eutsi behar diogu, bagarelako gauzak aldatzeko gai.

- Almudena Grandesekin zenbateraino identifikatzen zara?

Enpatikoa da eta sortzaila eskuzabala. Aurretik ere bere jarraitzailea nintzen, bere liburu guztiak irakurritakoa.

- Zure esku lagatzen dugu Coliseorako deialdia...

Barre egiteko aukera paregabea eskaintzen dugu. Gizarte marxista eta misogino hau aldatzeko beste motibo bat.



Eibar Kantuan arrakastatsua

Eibarko Txirindulari Elkarteak bere esker ona adierazi dio Eibar Kantuan jaialdira joandako publiko guztiari, "baita ekitaldian parte hartu duen talde osoari ere, muxutruk egindako bere aportazioarengatik, eta Eitb-ri bere lan profesionalarengatik eta ekoizpenerako izan duen harreman zabala eta errazagatik". Jaialdian parte hartu zuten taldeek euren onena eman zuten eta jendeak ondo txalotu zuen euren lanaren emaitza, hurrengo batean bueltan gehiagorekin izateko animoak eman eta jasotzeko moduan.



Harixa Emoten saioen denboraldia amaitu da

Iban Zalduaren Etorbizuna liburuarekin agurtu dituzte ... eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean antolatutako literatura saioak. Hilean behin irakurri dituzte liburuak, liburuen egileek tertulietan parte hartu dute eta Antxon Narbaizak gidatu ditu saioak. Datorren ikasturtean egitasmoarekin jarraitzeko asmoa agertu dute antolatzaileek.

Zabala eta Aristiren hitzaldia

"Udarik izango al dugu aurten?" izenburupean hitzaldia ematera etorriko dira Eibarre-ra Pello Zabala eta Urko Aristi, datorren maiatzaren 20an, arratsaldeko 19.00etatik aurrera (... eta kitto!-n). Danon ahotan izaten dugun gaia da eguraldia, are gehiago uda gerturatzen ari den sasoi honetan, eta kezka guztiak argitzezko prest etorriko zaizkigu bi adituak.



Aintzinako argazki estudioa Untzagan

Klub Deportiboko Argazkilaritza taldekoek antolatutako Argazkilaritza Maiatzean martxa betean sartuta dabil. Aurreko astean, barixakuan, zazpi erakusketa aldi berean inauguratuta ekin zioten aurtengo egitarauari. Maiatzaren 25era arte Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideen argazkiak El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatu etxean ikusteko aukera egongo da. Portaleko erakusketa aretoan, berriz, Portfolio Natural elkarteko kideen lanekin batera Enric Pàmies eta Garcia de Marina-ren argazkilarienak daude ikusgai. Depor tabernako hormak 33. Argizaiola Lehiaketako argazkiekin jantzi dituzte. Eta Topalekuan Jose Ramon San Jose-ren lanak ikus daitezke. Baina, herriko erakusketa areto guztiak era guztietako argazki ederrekin bete dituzten arren, Deportiboko argazkilariek azken urteotako bideari jarraituko diote eta aurten ere kale-raino aterako dute argazkilaritza eta, horretarako, domeka goizean, 10.00etatik 14.00etara Untzaga argazki-estudio bilakatu dute. Argazkilaritza sortu zela 175 urte beteko dira aurten eta, horregatik, domekan plazan ipiniko duten estudioa beste sasoi



batean oso modan egon ziren argazkilari "minutularien" omenez prestatuko dute: nahi duten guztiek bertara joan eta Leire Kareagak okasiorako marraztu duen dekoratua argazkia ateratzeko aukera izango du eta, ikatz-en babesari esker, martitzenetik aurrera dendara joanda bakoitzari bere erretratua papelean emango diote, ezer ordaindu barik. Eta urtero lez, hilaren 25ean egingo den argazkiallyarekin agurtuko dute maiatzerako prestatu duten egitaraua.

Ipurterreko sariak eta magoa

Aurtengo edizioan saritu ditzuzten idazle gazteek datorren astean, eguaztenean jasoko dituzte euren sariak, 10.00etatik aurrera Hezkuntza Esparruko aretoan egingo den ekitaldian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketan urtero mila ikasletik gora hartzen dute parte eta maila bakoitzeko idazlan onenen egileak saritu egiten dituzte epaimahaikoei. Sari-banaketa ekitaldian, gainera, aurtengo irabazleek eta euren ikaskideek Txoborro magoaren joko eta trikimailuekin primeran pasatzeko aukera izango dute.



laburrak

FAUNA GALA

Ermuko Pelukeras Maresy-k moda eta estilismo gala egingo du bihar Punto y Aparte diskotekan, arlo horretako joerak jendeari zuzenean aurkezteko asmoz. Fauna Gala 17.30etan hasiko da, makillajea, orrazkerak, doaneko manikura eta beste hainbatekin. 19.30etan, berriz, ongi-etorri koktela eskainiko dute Unzaga Plaza hotelaren eskutik eta estilismo pasarela 20.00etan hasiko da, Arrate Fernandez kazetariak aurkeztuta. Sarrera 5 euro kobratuko dute (kontsumizio bat barne).

IKASLEAK BERTSOTAN

Coliseo antzokiak Umeen Bertso Jaialdia hartuko du maiatzaren 19an eta 20an, 18.00etan eta urtero lez, ikasturtean zehar bertsolaritza lantzen ibili diren ikasleek ikasitakoa taula gainean erakusteko aukera izango dute. Sarrerak euro bi balio du eta nahi duenak aldeztu aurretik erosteko aukera izango du.

BEHI BI BLUES ZUZENEAN

Behi Bi Blues (Soraluze-Bergara) armonika eta gitarra bikoteak kontzertua emango du Ez Dok tabernan zapatu gauean, 23.30etatik aurrera. Emanaldia berezia izango da, disko berria orain dela gutxi grabatu dutelako eta, gainera, euretako batek bihar bertan urteak beteko dituelako.



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO

(2013-X-25)

Sei hilabete badira ere gure aldetik joan zarela...
**EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN
DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.**

○ Errenta aitortpena euskeraz?

Bizkaian, behintzat, ez da hain erraza halakorik egitea. Hori aitortpena euskaraz egitera bultzatzen gaituela Aldundiak. Baina, errealtatean, frustrazioa nagusi daiteke. Jende gaztea kontratatu ohi dute kanpainarako, baina aurten ere arazoak badira. Aurten, esaterako, Basaurin sei bulegotatik bakarrean dago euskaraz egiteko aukera: euskaldunen emeserban, baina, ez da euskaldunentzat emeserbatua. Bilbon, 37 bulegotik, 8 dira emeserba; Barakaldon, 10etik, bi; Getxon, 6tik, bi. Santurtzin eta Portugaleten, 5etik, bi. Eta Balmasedan, Ortuellan, Sopuertan, ... erdaraz derrigorean.

euskararen txokoa

○ Euskaraz bide bat gehiago

Mintzanet aurkeztu dute Azpeitiko Euskara Patronatuan, Mintzalagunen Intemeteko bertsioa: bidelagunen (euskaraz ondo moldatzen direnak) eta bidelarien (gubxirago dakitenak, ikasten ari direnak edota praktikatzeko gogoia dutenak) arteko harremana da. Maramara elkarteak sortutako Mintzanek da Internet bidez euskaraz hitz egiteko edota euskara praktikatzeko proiektua. Bikoteka egiten dira elkarmizketak, eta bidelagun bat eta bidelari bat elkarmekin aritzen dira. Mintzaneten jatorria Mintzalagun proiektuan dago eta azken honen sareko bertsioa da. Hori bai: ez da eskola bat, euskaraz jarduteko aukera baino.

Euskal Jaiko tiketak salgai

Aurten 49. edizioa beteko duen Euskal Jaia ate joka daukagu eta, egitarauko ekitaldi gehienak hilaren 23tik 25era egingo diren arren, asteburu horretarako antolatuta diren kantu-afari eta herri bazkarira joateko asmoa dutenek txartelak aldeaz aurretik erosi beharko dituzte. Txartelen salmenta aste honetan bertan hasi da. Erosi nahi duenak maiatzaren 18ra arte izango du horretarako aukera, Deporren bertan. Beharginendako txartelak 10 euro balio du (ume, ikasle eta langabetuek 7 euro).

Eskolarteko antzerki erakusketa

Hogei hamar urte beteko ditu datorren astean abiatuko den **Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketak**. Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentrukoek eta Narruzko Zezen taldekoek antolatutako jaialdia Txalo konpainiaren "Mollie Malonen ipuin sinestezina" antzezlanarekin hasiko da aurten, maiatzaren 14an (15.00etan Hezkuntza Esparruan). Eguaztenean abiatuko den egitarauari jarraituta, hilaren 17an La Papa Teatrok "Con los pies en las nubes" taularatuko du (17.00etan Coliseoan), 20an Titiriguirik "Hay un gallo en el tejado" (15.00etan Hezkuntza Esparruan), 22an Teatro Paraisoren



eskutik "Erpurutxo" antzezlan ailegatuko da Hezkuntza Esparrura (15.00etan), 27an "Canciones de titiriteros" eskainiko du Huescako Los Titiriteros de Binefar taldeak eta 29an, berriaz, Bizkaiko Gorakada konpainiak agurtuko du erakustaldia, "Aladdin" izenburuko lanarekin.

Yoga eta Afrikako dantzak

Arrate Kultur Elkarteak ikastaro bi antolatu ditu maiatza eta ekainerako: yoga ikastaroko klaseak martitzen eta eguenetan izango dira eta talde bi osatuko dira, bata goizez (12.00etatik 13.30etara) eta bestea arratsaldeaz (17.30etatik 19.00etara). Ikastaroa Marta Irustak emango du eta joan nahi duenak hileko 35 euro ordaindu beharko ditu (Kultuko bazkide izanez gero prezioa 30 eurokoa izango da). Beste ikastaroan izena ematen duenak Afrikako dantzak ikasteko aukera izango du eta klaseak Arantza Iglesias Arbizuk emango ditu maiatzaren 22 eta 29an eta ekainaren 5 eta 12an (eguenetan), 19.00etatik 21.00etara. Ikastaro biak Arrate Kultur Elkartearen eskainiko dituzte (1. pisuan) eta izena emateko zuzenean bulegora joan daiteke (astelehenetik eguenera, 17.00-etatik 19.00etara), 943202299 telefono zenbakira deitu (erantzungailuan mezua laga daiteke edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi).



LUCIA AÑIBARRO ISASTI (2010eko maiatzaren 5ean hil zen) IV. URTEURRENA

“Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko”

ZURE FAMILIA



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltezkotan: publizitatea@etakitto.com




Zorionak, MARKEL, txapeldun, sei urte egin dozuz-eta. Mutil haundixarentzat, muxu potolo bat zure famelixaren partez.



Zorionak, AMAIA, aurreko domekan bederatzi urte egin zenuzuen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, EÑAUT, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Aitta, ama eta Ekhiren partez.



Zorionak, IBAI, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat ama, aitta eta Beñaten partez.



Zorionak, IZARO, bixar jaunartzia ospatuko dozulako eta, horrez gain, etzi bederatzi urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, PELLO, domekan 8 urte bete zenuzuen-eta. Zeñ ondo pasau genduan pirata, printzesa eta tigre artian. Patxuak!!!



Zorionak, DANEL Makibar, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Muxu erraldoia etxeko danon eta, batez be, arrea Liberen partez.



Zorionak, DANEL, zazpi urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat Aner, Noa eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IBAI, apirilaren 26xan hiru urte bete zenuzuen-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, MARINA, domekan 12 urte egingo dozuz-eta. Zure gurasuen eta famelixaren partez.



Zorionak, ANE eta GAIZKA, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bana etxekuen partez,



Zorionak, AITATXO, zure BITXITOREN partez.

hildakoak

- Remigio Rodríguez Rodríguez. 91 urte. 2014-IV-18.
- Rosa Gil Tesouro. 56 urte. 2014-IV-24.
- Martina Uriarte Aranburu. 96 urte. 2014-IV-24.
- Juan Cruz Izagirre Maiztegi. 65 urte. 2014-IV-27.
- Jesusa Egiguren Gallastegi. 84 urte. 2014-IV-28.
- Jesus Rementeria Atorrasagasti. 71 urte. 2014-IV-29.
- Javier Leguina Telleria. 88 urte. 2014-IV-30.
- Carmen Blas Garcia. 93 urte. 2014-V-3.
- Lucia Egja Txurruka. 2014-V-6.
- Juan Maria Beitia Oruna. 78 urte. 2014-V-7.

jaiotakoak


- Tasnim El Aissati El Moussaqui. 2014-IV-12.
- Akram Rahali Hanif. 2014-IV-20.
- Intza Amillategi Alberdi. 2014-IV-23.
- Suhar Cortes Corada. 2014-IV-24.
- Irati Eizagaetxeberria Espinosa. 2014-IV-25.
- Urko De la Vega Dominguez. 2014-IV-26.
- Ibai Hernandez Iraola. 2014-IV-30.
- Laia Zengotitabengoa Pizzi. 2014-IV-30.
- Peru Gorosabel Txurruka. 2014-V-2.
- Julen Bengoetxea Moreno. 2014-V-3.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
10ean: 19.45, 22.30
11n: 20.00
12an: 20.30

"Cronicas diplomaticas"


Zuzendaria: Bertrand Tavernier



(2 ARETOAN)
10ean: 19.45, 22.30
11n: 20.00
12an: 20.30

"Molière en bicicleta"

Zuzendaria: Philippe Le Guay



(ANTZOKIAN)
10ean: 22.30
11n: 20.00
12an: 20.30

"Aprendiz de Gigoló"

Zuzendaria: John Turturro



BARIXAKUA 9

BATZARRA

19.00. Sanjuanak antolatzeke batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

ELKARRETARATZEA

19.30. Iheslarien Eskubideen aldeko egunaren harira. Untzagan.

HITZALDI DANTZATUA

19.30. "Korrotik Pikutara". Berreibar Ekimen Kulturalaren eskutik. Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7-1. solairuan).

ANTZERKIA

20.30. "Atlas de geografía humana" (CDN-A Priori Producciones). 16 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.30. Kike Tormenta: "Todo o nada". Beleko tabernan.

ZAPATUA 10

SKETCH CRAWL

10.15. Euskal Herria's Sketch Crawl, Berreibar Ekimen Kulturalaren eskutik. Tren geltokitik (Estaziñotik) abiatuta (ibilbidea Eibarko tailerretan zehar).

IHESLARIEN EGUNA

11.00. Mahai-ingurua, iheslari izandako hainbaten eskutik. Arrate Kultur Elkartean.
14.30. Bazkaria. Untzagan.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Frozen" (Disney). El Corte Inglesean.

FAUNA GALA

17.30. Gala: makillajea, orrazkerak, manikura...
19.30. Ongi-etorri koktela.
20.00. Pelukeras Maresy-ren moda eta estilismo pasarella. Sarrera: 5 euro (kontsumizio bat barne). Punto y Aparte-n.

GURE ESKU DAGO

18.30. Musika eta jai giroan giza-katea osatzea, herritar guztientzat zabalik, Gure Esku Dago Eibarko taldeak deituta. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren irteera, Untzagatik abiatuta.

KONTZERTUA

23.30. Behi Bi Blues Friends&Enemies JAM taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 11

ARGAZKIA MAIATZEAN

10.00/14.00. Argazki estudioa kalean. Untzagan.

KONTZERTUA

19.00. Usartza Txistulari taldearen kontzertua. Untzagan

ASTELEHENA 12

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

MARTITZENA 13

IKASTEN

10.00. "Musica, periodo romantico" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

EGUAZTENA 14

IPURTERRE

10.00. Ipuin lehiaketako irabazleei saria banatzeko ekitaldia eta Txoborro magoaren ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "Homeopatia". Untzagako jubilatuek etxean.

XXX. ESKOLA ANTZERKIA

15.00. "Mollie Malonen ipuin sinestezina" (Txalo). Hezkuntza Esparruan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres parrokian.

DANBORRADA

19.00. Danborradarako entsegua (umeak).
20.00. Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (Amalur ohian).

EGUENA 15

IKASTEN

10.00. "Musica, periodo romantico" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

SAN ISIDRO

11.00. Meza, bertsolari eta trikitalariekin. Prozesioa. Aurrekoa, Kezka dantza taldearen eskutik. Txakoli, gazta eta txerriki dastaketa.
12.30. San Isidroetako XII. Aizkolari Txapelketa, harrijasotzaileen saioarekin tartekatuta.
14.00. Bazkaria (Kantabria jatetxean). Jarraian, bertsolariak eta trikitalaria.
17.30. Idi-demak. Arraten.

ODOL-ATERATZEA

18.30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulategian.

HITZALDIA

19.00. Gizarte Politikei buruzko hitzaldi irekia, Maite Peña eta Eider Mendozaren eskutik. Batzokian.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Faltan botako dituzu orain dela hiru aste biziako sasoi ederrak, baina ez zara triste ipiniko. Ondo pasatzen badakizu!

TAURUS

Hainbat ekimen aurrera ateratzeko ardura izango duzu eta lanpetuta ibiliko. Benetan lan egitea zer den ikasiko duzu oraingoan.

GEMINI

Jatorragoa zela pentsatzen zenuen, baina konturatu zara pertsonak benetan ezagutu behar direla eurei buruz zoezer esateko.

CANCER

Idea bikaina burutu zaizu eta gauzatzeari ekingo diozu. Hori bai, beste pertsona bati laguntza eskatu beharko diozu aurretik.

LEO

Alboan duzun pertsona maitearekin une zoragarriak pasako dituzu asteburuan. Elkarrekin duzuen konfidantza eredu da.

VIRGO

Gauza bat okertzen denean, jarraian dena okertzen da. Saiatu arazoak konpontzen, baina pazientzia izan datorkizunarekin.

LIBRA

Zurekin nolako aktorea galdu dugun. Beti gehiegikerietan! Lagunek badakite nolakoa zaren eta ez dira jada harritzen.

SCORPIUS

Oso ondo bizi zara eta ez duzu inongo kexarik, baina datorren astean nahiko triste ibiliko zara. Deskubritu zergatik...

SAGITTARIUS

Gezurretan ibiltzeak arrisku handiak dauzka eta, horrela ibiltzeagatik, pertsona batzuren konfidantza galdu dezakezu.

CAPRICORNIUS


Udako oporrak buruan sartuta dituzu eta planak egiten hasi zara. Zoezer berezia egiteko, baina, aurrekontu txikia zurea.

AQUARIUS

Jarrera ezkor horrekin ez zara oso urruti joango. Animoa aldatuko dizun zerbait gertatuko zaizu, poliki gora egiteko lain.

PISCIS

Istoria bitxia gertatuko zaizu hemendik gutxira. Hasieran ez duzu sinestuko, gero urduritu egingo zara eta barrez amaituko.



erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
33. ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Depor tabernan. KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN argazki erakusketa. El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuetxean.
JOSE RAMON SAN JOSEREN argazki erakusketa. Topalekuan.
PORTFOLIO NATURAL elkartekoen eta ENRIC PAMIES eta GARCIA DE MARINAREN argazki erakusketa. Topalekuan.

lehiaketak

- ✓ **“Sanjuanak Eibarren” kartel lehiaketa**
Informazioa eta lanak aurkeztea: maiatzaren 9ra arte, Pegoran.
- ✓ **Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa**
Informazioa eta lanak aurkeztea: maiatzaren 9ra arte, Pegoran.
- ✓ **Li (buru-hausgarriak)**
Irakurzaletasuna sustatzeko lehiaketa, LH-ko 2. mailatik gorakoentzat. Liburutegian.

ikastaroak

- ✓ **Yoga. Noiz eta non:** maiatzetik ekainera, martitzen eta eguenetan (12.00-13.30 / 17.30-19.00). Irakaslea: Marta Irusta. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: hileko 35 euro (30 bazkideek).
 - ✓ **Dantza Afrikarrak. Noiz eta non:** maiatzaren 22 eta 29an; ekainaren 5 eta 12an (eguenetan), 19.00-21.00. Irakaslea: Arantza Iglesias Arbizu. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: 45 euro (40 euro bazkideek).
- Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkartean, astelehenetik eguenera (17.00-19.00); 943202299 telefonora deituta (mezua laga erantzungailuan); arratekultu@gmail.com helbidera deituta.

farmaziak

- ✓ **barixakua 9**
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 10**
EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 11**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 12**
EGUNEZ Larramendi (F. Calbeton, 19)
- ✓ **martitzena 13**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztana 14**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguna 15**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 16**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Eguzkerak: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Eguzkerak: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerak: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Eguzkerak: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Eguzkerak: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguzkerak: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

4				3	9		
		8					6
	6	7	4				3
			3		1		5
	1	6		9		3	
5		2		8			
3				1	6		8
2				8			
		9	3				4

SUDOKUA

4	3	9	8	5	2	1	6	7
6	2	1	4	7	9	5	3	8
5	7	8	3	1	6	4	2	9
3	4	6	1	8	7	2	9	5
2	9	7	6	3	5	8	1	4
1	8	5	9	2	4	6	7	3
8	5	3	2	9	1	7	4	6
7	6	2	5	4	3	9	8	1
9	1	4	7	6	8	3	5	2

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 60 m². Beriztua. Argitsua eta kanpora begira. Bero-gailu urdina. 69.000 euro. Tel. 617-207672. 19.00etatik aurrera.

1.2. Errentan

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komunarekin. Tel. 632-192408.
– Pisia alokagai Jardinetan. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.
– Pisia hartuko nuke errentan. 3 logela, egongela erta komunarekin. Tel. 632-192408.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Taberna txikia alokagai Urkin. Errenta eta fidantza merkea. Tel. 645-710439.
– Lokala partekatuko nuke. Prezio onean. Tel. 620-608065.
– Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 943-207156.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da garbiketala lan egiteko. Tel. 620-258708.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Tel. 695-144954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 654-281645.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Tel. 632-711387.
– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da garbiketala lan egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-771590.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketala lan egiteko eta tabernan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-030789.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Tel. 634-777382.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketala lan egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 631-282203.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketala lan egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 636-419814.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da gizonetako nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-506108.
– Emakumea eskaintzen da goizez edozein motako garbiketala lan egiteko. Tel. 628-872295.
– Pedagogia ikasketak amaitzen diharduen irakaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982. Igone.
– Neska eskaintzen da garbiketala lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-057896.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan bane. Tel. 633-244397.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernan laguntzaile jarduteko... Tel. 686-420642.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-196651.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 600-332954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-966358.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita oporretan ere. Tel. 638-338816.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia ospitalean. Orduka. Tel. 631-203287.
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Sei hilabeteko esperientzia. Tel. 631-548678.
– Emakumea eskaintzen da fruitategian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-429711.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-571882.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-972733.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Baita gaez ere. Tel. 632-253170.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Baita gaez ere. Tel. 669-311385.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Tel. 636-362251.
– Emakumea eskaintzen da goizez sukaldari-laguntzaile jarduteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-619470.
– Gizona eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, adreiluzko 2. mailako ofizial moduan eta sukalde-zaintzaile jarduteko. Tel. 632-192408.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Interna. Tel. 631-343232.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Tel. 632-981779.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta fisioterapiari jarduteko. Tel. 636-585930.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-230789.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile jardun eta baserrian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 688-302653.
– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-805363.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Tel. 626-722291.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 11 urteko esperientzia. Tel. 639-962219.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko. Orduka. Tel. 653-075865.
– Masajista profesionala eta Medikuntza Energetikoan aditua eskaintzen da etxerik-erxe lan egiteko. Lehenengo saioa doan. Tel. 656-927561.
– Emakume eibartarra eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzaile tituluduna. Tel. 616-607121.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketala lan egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Orduka. Tel. 699-232823.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-889235.

4.2. Langile bila

– Gaztea behar da asteburu eta jaietan tabernan lan egiteko. Bidali curriculum-a kamararobila@gmail.com helbidera.
– Emakume euskalduna behar da umea eskolara eraman eta etxea garbitzeko. Tel. 699-024156.
– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 620-810120.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Batxilergo 2. mailako Biologia eta Kimika irakasle partikularra behar da. Tel. 646-344937.

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, ... Tel. 620-608065.
– Lizentziatua eskaintzen da maila desberdinetako ikasleei (LH, DBH, Batxilergoa...) klaseak emateko. Euskaraz eta erderaz. Banaka edo taldeka. Tel. 699-495279.
– Igarle izateko eta tarot ikastaroak ematen ditut. Tel. 685-739355.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Mini-sehaska salgai, Micuna Smart markakoa. La erabili gabe. 150 euro. Tel. 669-947125.
– Labea salgai, taberna, okindegi edo dendan erabilitzeko modukoa. Baita ostalaritzako altzari gehiago ere. Urte eta erdi erabilitaok. Tel. 615-719288.
– Gitarra espainiarra salgai. Raimundo markakoa. Tel. 658-715978.

6.2. Eman

– Neskaren baserriar jantzia oparitzen da. 14 tallakoa. Tel. 658-715978.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Mugikorra galdu zen Akara tabernan hila 3an, zapatuan, gaueko 23.30etan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 943-203312. Itziaz.
– Apirilaren 15ean Egogaineko (autobus geltokia) umeen parkean ahaztu egin ginen jolasteko bikien aulkia (gorria eta zuria) eta bi panpin. Balio sentimental handia du umearentzat. Eskertuko da bueltatzea. Tel. 653-053630. Maider.

6.4. Bestelakoak

– Eibar FT-ko kamiseta erosiko nuke. 6 urterako neurrikoa. Deitu arratsalde. Tel. 637-012625.

Inoiz ez da azkarregi
heziketarik onena jasotzeko
www.aldatze.org



ALDATZE

Colegio Santa María
de la Providencia

Aldatze Kalea, 5 - 20600 EIBAR
Tel.: 943 70 11 50 - Fax: 943 70 13 04
aldatze@aldatze.org



aldatze
haur-eskola

aldatze
batxilergoa



AURREREMATRIKULA:
Maiatzaren **5**etik **15**era

ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI

BAI

Asteartea 13 Untzaga Plazan

19:00etan **EKITALDI POLITIKOA**

Josu Juaristirekin

**EMAN
BOTOA**

ehbildu
herrikerabaki



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

